

NAFARROAKO LURRALDE ESTRATEGIA BERRIKUSTEA.

PARTE HARTZEKO PROZESUA.

NLE-REN ZIRRIBORROAREN AURKEZPENA

Ingurumen arloko bilkura sektoriala

Lekua: INAP eraikina, Pio Baroja aretoa.

Eguna: maiatzaren 20a

Ordua: 12:30etik 14:30era.

SAIOAREN EGITURA

- 1.- Hasiera eta ongietorria.
- 2.- Parte hartzeko prozesuaren azalpena.
- 3.- NLEren zirriborroa aurkeztea.
- 4.- Galderak eta ekarpenak.

Ingurumen-gaiei buruzko bilkura sektorialaren helburua NLEren zirriborroa aurkeztea zen, bereziki ingurumen-alderdiekin lotutako guztia, bai eta gai horiei buruzko galderak eta ekarpenak jasotzea ere.

Erredakzio taldearen aldetik Rosa Sola eta Manuel Borobio izan ziren.

Garrantzitsua da adieraztea zirriborroaren inguruko parte-hartze prozesu hau prozesu osoaren fase bat dela, eta informatzeko eta parte hartzeko beste une batzuk daudela. Fase honetan, zirriborroa da xedea, eta jasotzen diren ekarpenetan oinarrituta aldaketa ezberdinak jasan ditzake.

Garrantzitsua da adieraztea fase honetan parte hartzeko aldia ekainaren 25era arte luzatu zela, NLEren berrikuspenean parte hartzeko webgunearen bidez (<https://participa.navarra.es/processes/revision-estrategia-territorial-navarra?locale=eu>). Webgune horretan, beharrezko dokumentazioa deskarga daiteke (NLEren zirriborroa eta laburpen exekutiboa) eta beharrezkotzat jotzen diren ekarpenak egin daitezke.

Jarraian, NLEren zirriborroa aurkeztu ondoren bilkuran egindako ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Parte-hartzaileei animatu zitzaien beren ekarpenak idatziz web-orriaren bidez bidaltzera, behar bezala kontuan har daitezten.

GALDERA ETA EKARPEN NAGUSIAK

Jarraian, saioan egindako galdera eta ekarpen nagusien laburpena azalduko da. Ez dira ipini pertsonen izenak, pribatutasuna babesteko arrazoiengatik.

- Adierazi da ezen, dirudienez, aurreko NLEk zekarren zenbait arazo konpondu nahi izan direla, izaera arauemailea izateko proposamenarekin. Baina oso garrantzitsua da arau-izaera hori noraino iristen den definitzea eta argitzea, horren arabera NLE oso desberdina izan baitaiteke. Hala ere, ezin da ahaztu irizpideen garrantzia, horiek gabe estrategiak ez baitu zentzurik.
- Aipatu da NLEk helburu hobek eta okerragoak zituela. Oro har, NLE ezagutu duenak badaki ez dela ondo joan. Horregatik, adierazleak jarri eta helburu batzuk aldatu ziren. Baina ez dago adierazle konposatu, haztatu eta kalkulatu erraza, NLE nola joaten ari den zehazten duena. Orain da garaia NLE ezaugarri horiek dituen tresna batez hornitzeko.
- Zalantzak adierazi dira NLE onartzeko beharrezkoa ote den Lurralde Antolamenduaren Lege berria ere onartuta egotea. Gai hori argitu beharra dago.
- NLEk elikadura-subiranotasuna kontuan hartu beharko lukeela nabarmendu da. Kezkagarria da Nafarroan elikadura-subiranotasunari buruzko estrategiarik ez egotea. NLEk kontuan hartu beharko luke zer abeltzaintza eta nekazaritza motaren alde egin nahi den eredu jasangarri baten alde. Gaur egun dagoen gabezia handia da.
- Determinazioak lotesleak izatearen gaiari dagokionez, adierazi da horrek arriskuak izan ditzakeela. Gidalerroak ere oso garrantzitsuak dira. Ondo hausnartu behar da zer alderditan den loteslea, jarraibideak eta orientabideak alde batera utzi gabe. Esan da ez dela dena arauemaile izan behar, horrek arrisku bat suposatuz dezake eta estrategiak funtsa galtzen du.

- Esan da garrantzitsua dela kontuan hartzea determinazioak egotekotan, hauek oso argiak izan behar direla, eta ez gertatzea LAPekin gertatzen den bezala, non gai batzuetarako ez dagoen argitasunik (adibidez: uholdeen gaiarekiko arazoak).
- Nabarmendu da elikaduraren, haren ekoizpenaren eta subiranotasunaren gaia funtsezkoa dela. Gerrak funtsezko gai bat nabarmendu du. Elikagaien ekoizpena, haren jasangarritasuna, kalitatea eta osasunarekin duen lotura guztia NLEk kontuan hartu beharreko alderdiak dira.
- Esean da ezen, gehienetan, dirudiela landa-eremuan eragin handia duten alderdiak arautzen eta planifikatzen direla, landa-eremua kontuan hartu gabe. Nekazaritzaren gaian oso argi dago horrela gertatzen dela.
- NLEk Azpiegitura Berdearen Estrategia kontuan hartzearen garrantzia azpimarratu da. Estrategia hori, gainera, gaur egun Gobernu Irekian dago. Komenigarria litzateke NLEk kontuan hartzea, NLEren aurretik onartuta egon baitaiteke. Gai arauemaileari buruzko kezka dago, eta nola artikulatuko den dena, baldin eta estrategia bat bestea baino lehenago onartzen bada.
- Uste da oso garrantzitsua dela NLEren azken dokumentua sinplea eta irakurterraza izatea. Funtsezkoa da jarraibideak argiak eta ulergarriak izatea. NLEren denbora- eta espazio-eskala ere funtsezkoa da.
- Aipatu da oso garrantzitsua dela LAPetan funtzionatu duenaren (eta funtzionatu ez duenaren) ebaluazioa egin eta hortik ikastea. Oso garrantzitsua da NLEn lurraldeen berezitasuna kontuan hartzea. Ingurumen-berezitasunak ere garrantzitsuak dira.
- Babes Zibileko Zerbitzua Baso Suteen Plana eguneratzen ari dela azpimarratu da. Plan honek NLE eguneratzeko oso interesgarriak izan daitezkeen elementuak ditu, batez ere lurraldearen kalteberatasunarekin zerikusia duten alderdietan.